

PROBA ESPEZIFIKOA

2023ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





1. Azaldu Bilboko plano hau: (3 puntu)



2. Garatu gai hauetako bat: (3 puntu)

- a. Migrazioak Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan:
 - i. Kanpo-migrazioak
 - ii. Atzerriko immigrazioa
 - iii. Barne-migrazioak
- b. Europar Batasunaren instituzioak:
 - i. Europako Parlamentua
 - ii. Europako Batzordea
 - iii. Europako Banku Zentrala

3. Labur azaldu edo definitu hitz hauek (aukeratu 2) (1 puntu)

- a. Abeltzaintza intentsiboa
- b. Jurisdikziopeko urak
- c. Garapen jasangarria
- d. Labore-txandaketa
- e. Holding-a

4. Koka itzazu mapan Iberiar Penintsulako erliebe-unitate nagusiak (mendiak, mendiguneak, mendikateak, mendilerroak, sistemak, sakonuneak, goi-lautadak). (3 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK


2023ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2023

GEOGRAFÍA





EBAZPEN ORIENTAGARRIA

1. Azaldu Bilboko plano hau: (3 puntu)



Bilboko plano bat dugu aurrean.

Hiri hau Ibaizabal ibaiaren bi ertzetan dago, bokaletik kilometro gutxira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiririk populatuena da.

Hiri-egitura osatzen duten zatiak kontuan hartuta egingo dugu iruzkina: alde zaharra, zabalgunea, hiri-periferia eta hiri-periferiako zerrenda.

Kasu honetan, **alde zaharra (1 zenbakia)** itsasadarraren eskuinaldean dago, eta hiriaren gainerakoa baino hiri-bilbe trinkoagoa du. Sortu zenetik planifikatu zen Zazpikaleak izeneko multzoa, baina hasiera batean lehenengo hirurak bakarrik okupatu ziren: Goienkale, Artekale eta Dendarikale izenekoak. XIV. mendean osatu zen multzoaren eraikuntza, Barrenkale, Harategi Zahar, Barrenkale Barrena eta Belostikale erantsita. Bilbe itxiko plano ortogonal bat osatuz antolatuta daude. Han, bizitegi-funtzioarekin batera, baziren manufaktura- eta merkataritza-jarduerak ere. Erdi Aroan harresiz inguratuta zegoen.

XVII. mendean XIV. mendean eraikitako hiriaren inguruko harresia eraitsi zen, eta haren ordeztan Erronda kalea sortu zen. XVIII. mendean zenbait eraikin (Plaza Barria) eta pasealeku (Areatza) eraiki ziren, eta horrek erakusten digu merkataritza- eta artisautza-jarduerak jatorrizko gunea zabaltzera behartu zutela. Jatorrizko gunearen ezaugarriak ez ziren aldatu.



Hiriko merkataritza-gune garrantzitsuenetariko bat da; etxebizitzak garestiak izaten dira eta asko zaharberritu egin dira edo birgaitu egin behar dira.

XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, garapen industrial eta finantzarioarekin, hiria zabaltzen hasi zen. Trenbidea eraiki zen, eta norabide horretan hedatu zen hiria (Abandoko elizatea, zeina anexionatu baitzen). **ZABALGUNEaren multzoaren plano (3 zenbakia)** erradiozentrikoaren eta ortogonalaren nahastea da. Kale zabalak eta eraikin garestiak eraiki ziren (burgesiaren egoitza), eta erakunde politiko eta finantzarioen egoitzak ere bai: Diputazioa, hainbat banku. Gaur egun, hiriko CBDa (Central Business Center) da. Hau da, enpresa, banku eta beste finantza-produktu batzuen zerbitzu gehienak biltzen zituen negozio-zentroa izan zen.

Alzola, Achucarro eta Hoffmeyerrek diseinatutako **LEHEN ZABALGUNEA** 1876-1926 bitartean eraiki zen. On Diego Lopez Haroko kale nagusia izan zen ardatza, Moyua plazaraino —Plaza Eliptikoraino— iritsita, eta, Begoña eta Deustuko elizateen lurraldeak anexionatu ondoren (1924) (**2 zenbakia**), haietan barrena zabaltzen jarraitu zuen. **BIGARREN ZABALGUNEA** (1936-1950) Jesusen Bihotzaren plazaraino iritsi zen.

1950etik, lurzoruaren okupazio-prozesua intentsiboa eta etengabea izan zen: zabalgunean burgesiaren etxe zahar batzuk eraitsi ziren eraikin altuak eraikitzeko: bankuak, saltegi handiak, etab.

XX. mendeko azken hamarkadan, industria-hiria hirugarren sektoreko edo zerbitzuetako hiri bihurtzen hasi zen. Hirugarren sektoreko hiri bihurtze horren isla dira Guggenheim Museoa eta Euskalduna Jauregia, Bilboko turismo- eta kultura-eskaintza nabarmen handitu dutenak.

HIRI-PERIFERIA

Zabalgunea eratu eta hazi ahala, zenbait auzo agertu ziren hiri-hierarkian. Haietan, langile-klaseen bizitegi-funtzioa eta zerbitzu-funtzioa (tailerrak, garajeak, biltegiak eta beste enpresa txiki batzuk) nahasian garatu ziren.

XX. mendearen hasierako bi auzo nabarmenduko ditugu: Iralabarri, Alfontso XIII.ak inauguratua eta langileentzako etxe merkeen auzo eredugarritzat hartua, eta Lorategi Hiria, garai hartan zabaldu ziren ideia naturalistei eta higienistei jarraituz eraikia.

2. Garatu gai hauetako bat: (3 puntu)

a. Migrazioak Espainian eta Euskadin:

- i. Kanpo-migrazioak**
- ii. Atzerriko immigrazioa**
- iii. Barne-migrazioak**

Espainiako populazioaren alderdi nabarmen bat Afrikako, Amerikako edo Europako beste herrialde batzuetara joateko tradiziozko mugikortasuna da, eta, garai berriagoetan, populazioa eskualde batetik bestera edo landa-eremuetatik hiri-eremuetara aldatzea.

Pertsonak lekuz aldatzea eragiten duten arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Oro har, puntu batean adostasuna dago: motibazioa ekonomikoa izaten da, hau da, beste leku batean lana bilatzea, egoera ekonomikoa hobetzeko eta, ondorioz, bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetzeko. Hala ere, ezin



ditugu ahaztu beste arrazoi batzuk, hala nola gerrek, jazarpen politiko edo erlijiosoek eta abarrek eragindako joan-etorriak.

Espainiako historian, migrazio-mugimenduak hiru atal nagusitan azter daitezke:

1.- Kanpo-migrazioak

a) Helmugak.

Afrikako iparralderako migrazioa garrantzitsua izan zen XIX. mendean.

Europara emigratzea oso garrantzitsua izan zen 1960tik 1970era bitartean, batez ere Andaluzian eta Galizian.

b) Kanpo-migrazioen ondorioak.

▪ **Migrazioaren ondorio positiboak.**

- Lan-merkatuko presioa murriztea: emigrazioari esker, langabezian zegoen populazioa gutxitu egin zen.
- Dibisak sartzea (atzerriko dirua).

▪ **Ondorio negatiboak.**

- Kostu demografikoak: emigratio-eskualdeetan biztanleria gaztea galtzeak biztanleria zahartzea eta jaiotza-tasa jaitea eragin zuen.
- Kostu sozialak: familia haustea, familiaburuak bakarrik emigratzen baitzuen; helmugako herrialdean egokitzeko zailtasuna, etorkinaren kultura-maila apalak eraginda; lan gogorrak eta gaizki ordainduak, arrisku-maila handikoak, etab.
- Kostu ekonomikoak: jatorrizko eremuak jendez hustearen ondorioz, lurrak eta azpiegiturak bertan behera uzten dira, populazioak murrizten dira, etab.

2.- Barne-migrazioak

Espainiako probintzien eta eskualdeen artean landa-eremuetatik hiri-eremuetara gertatzen den pertsonen lekualdatzea (nekazari-exodoa). Azken urteotako fenomeno geodemografiko garrantzitsuenetako bat da. Industrializazio- eta urbanizazio-prozesuak eragin ditu barne-migrazioak; Espainian, 1960 eta 1970 bitartean izan zuen intentsitate handiena.

a) Bilakaera historikoa. Barne-migrazioek bi etapa dituzte: XIX. mendetik XX. mendearen lehen erdira arte eta 1960ko eta 1970eko urteetan barne-migrazio garrantzitsuak gertatu ziren.

b) Joera berriak: Azken urteetan, barne-migrazioak aldatu egin dira intentsitatean eta portaera geografikoan. Hauek dira berrikuntzarik nabarmenenak:

- Migrazio-saldo positiboak dituzten probintziak gero eta gehiago izatea eta helmugetan migrazio-fenomenoak lehen zuen polarizazioa galtzea.
- Tradizioz immigrazio-eremu zirenak emigratio-eremu bihurtu dira, garai bateko emigranteak handik irtetearen ondorioz; «emigrante itzuliak» deitzen zaie.
- Nekazari-exodoaren ordez, herrigune batetik bestera aldatzen da populazioa.
- Emigrante mota ere aldatu da: gaur egungoa zerbitzuen sektorekoa da nagusiki.

c) Barne-migrazioen ondorioak.



Barne-migrazioen ondorioak batez ere demografian, gizartean eta ekonomian nabari dira.

- **Erakarpen-gune diren eremuetan**, etorkinak hiri-eremu askoren hazkunde demografikoaren oinarri bihurtzen dira. Kultura-aberastasuna eta -aniztasuna areagotzen ditu. Ekonomian, eskulanaren eskaintza hobetu egiten da, eta giza baliabideen kontzentrazioa handitu.
- **Emigranteen iturri diren eskualdeek** ondorio negatiboak izaten dituzte positiboak bainoago. Demografiari dagokionez, biztanleriak behera egiten du, haien egitura zahartu egiten da eta ugalkortasunak ere behera egiten du; ekonomiaren aldetik, giza baliabideak pobretu egiten dira eta jarduera ekonomikoak murriztu. Emigrazioak emigratzen ez dutenen errenta hobetzea dakar.

Oro har, biztanleriaren banaketan desoreka handiak eragin dituzte: batetik, biztanleria-kontzentrazio handiko eremuak sortzea ekarri dute, eta, bestetik, beste batzuen desertizazio demografikoa.

3. Atzerritarren immigrazioa Espainian

Espainia immigrazio-herrialde bihurtu da. Legezko immigrazioari buruzko datuak badira, baina ez dakigu immigrazio irregularra edo legez kanpoko zenbaterainokoa den. Azken hogeita hamar urteetan, hazkundera oso azkarra izan da.

Espainian bizi diren atzerritarren egoerak askotarikoak dira:

- Atzerritar nazionalizatuak.
- Langileak.
- Ikasleak.
- Babestuak eta errefuxiatuak.
- Legez kanpoko etorkinak.

b. Europar Batasunaren instituzioak:

- Europako Parlamentua**
- Europako Batzordea**
- Europako Banku Zentrala**

EBren instituzioak erakunde politiko eta instituzionalak dira, zeinen esku uzten baitute estatu kideek beren botereen eta subiranotasunaren parte bat. Horren helburua da estatuz gaindiko izaera duten organoek hartzea instituzioen zenbait erabaki eta jardun, eta haien borondatea estatu kide guztietan aplikatzea. Instituzioek bete beharreko arau eta prozedurak tratatu batzuetan ezarrita daude; tratatu horiek Kontseilu Europarrean eta gobernuen arteko konferentzietan negoziatuta daude, eta estatu bakoitzeko parlamentuek berretsita.

Europako Parlamentua (EP) parlamentu-biltzarra da. Bost urtean behin hautatzen dute Europar Batasuneko herritarrek europar hauteskundeetan. Zuzeneko sufragio unibertsal bidez munduan hautatzen den estatu anitzeko parlamentu bakarra da. Kontsultarako baino ez zen biltzar moduan sortu bazen ere, EPren legegintza-botereak nabarmen handitu ziren Maastrichteko Tratatuaz geroztik (1992). Gaur egun berak du, Kontseiluarekin batera, Europar Batasuneko legegintza-boterea. 751 diputatu ditu, herrialde bakoitzeko populazioaren arabera banatuak. Haren funtzio nagusiak hauek dira: aurrekontuak eta legeak onartzea, Europar Batasunaren Kontseiluaren eta Europako Batzordearen kontrola bermatzea eta nazioarteko akordioak berrestea. Europako Parlamentuaren egoitza Bruselan dago.



Europako Batzordeak Europar Batasunaren barneko botere betearazlea duen organoa da, baina legegintzan ere parte hartzen du.

Instituzio politikoki independentea da, eta Batasunaren interesak oro har ordezkatzeko eta defendatzeko ditu. Berak proposatzen ditu legeak, politikak eta ekintza-programak, eta berari dagokio Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren erabakiak aplikatzea.

Batzordeak proposatzen ditu Europar Batasunaren lege berriak, baina legegintza-ganberei (Parlamentuari eta Kontseiluari) dagokie legeak egitea. Hogei kidez osatuta dago (komisarioak), eta hiru eskumen nagusi ditu: Europar Batasunaren politikaren ekimena, Europar Batasunaren zuzenbidearen aplikazioa kontrolatzea eta Europar Batasunaren izenean negoziatzea nazioartean.

Europako Banku Zentrala (EBZ) Batasunaren diru-politikaren arduraduna da. Diru bakarraren, euroaren, banku zentrala da. Moneta-jaulkipena eta horretarako betebeharrak kontrolatzeaz gain, kanbio-politika eta interes-tipoen oszilazioak erabakitzen ditu, diru-politikaren arloko beste eskumen batzuez gain. Politika horiek helburu nagusi bat dute: inflazioa kontrolatuz, prezioen egonkortasuna zaintzea.

3. Labur azaldu edo definitu hitz hauek (aukeratu 2) (1 puntu)

- a. **Abeltzaintza intentsiboa:** gizakiak erabiltzeko animaliak hazi eta zaintzea tamaina txikiko ustiatzietan, industria-ekoizpenaren legeen arabera eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko helburuarekin. Adibidez, hegazti-haztegiak.
- b. **Jurisdikziopeko urak:** itsasertzaren ondoko itsas eremua, 12 itsas miliaraino iristen dena eta non estatuek subiranotasun osoa baitute. Itsas eremu eskusiboa itsasertzetik 200 miliaraino iristen da, eta hartan nazioarteko zuzenbideak ustiapen-eskubideak aitortzen dizkie estatuei.
- c. **Garapen jasangarria:** gizartearen egungo beharrak ingurumenaren kalitateari kalte handirik egin gabe (oreka ekologikoa) asetzen dituen hazkunde ekonomikoaren eredua, etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta bizi-kalitatearen hobekuntza benetakoa eta bidezkoa bermatzen duena. Adibidez, Kyotoko Protokoloak (1992) aldeztu duen garapen-eredua da.
- d. **Labore-txandaketa:** lurzati bat edo nekazaritzako ustiatzeta bat laborantza mota bat baino gehiago txandaka egiten diren parteetan zatitzea, lurra ez agortzeko eta ongari-gastua murrizteko. Adibidez, Norfolk sistema edo hiru urteko txandaketa-sistema.
- e. **Holdinga:** beste konpainia batzuen akzio guztiak edo akzioen parte handi bat eskuratuz haien jarduerak kontrolatzen dituen konpainia. Esate baterako, Santander bankuak Telefónica-Movistar eta Repsol enpresen akzioak kontrolatzen ditu.

4. Koka itzazu mapan Iberiar Penintsulako erliebe-unitate nagusiak (mendiak, mendiguneak, mendikateak, mendilerroak, sistemak, sakonuneak, goi-lautadak). (3 puntu)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK


2023ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE 25 AÑOS

MAYO 2023

GEOGRAFÍA





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2023ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2023

GEOGRAFÍA

PROBAKO GALDEREN, EZAGUTZA-MULTZOEN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

PROBAKO GALDERAK	EZAGUTZA-MULTZOAK	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
1. GALDERA	5. multzoa	5.2/ G.1/G.2
2. GALDERA	5. multzoa 2. multzoa	5.1/ G.1/G.2 2.3/ G.1/G.2
3. GALDERA	4. multzoa	4.1/ G.1/G.2
4. GALDERA	1/3 multzoa	1.1/ 3.1/ G.1/G.2